

Guda Dantza musika talde bizkaitarra gara eta aurten 10 urte bete ditugu agertokietan. Badakigu komenigarria litzatekeela gure musika proposamenari etiketa bat bilatzea, baina zorionez, memento honetan ez da posible. Ska-rock erritmoen inguruan mugitzen diren hiru disko kaleratu ostean, zerbait desberdina dakarkigu mahai gainera.

Asko izan dira azken urteotan esan ez ditugunak. Ez dakigu nola heldu ginen puntu honetara, baina 2019 inguruan ohartu ginen gure ibilbideko zenbait unetan ez garela erabat zintzoak izan. Bueno, agian ez da horren dramatiko jartzeko, baina egia da zenbait mementotan, beharbada lotsagatik, gauza asko tintontzian utzi ditugula. Horrela hasi ginen lan honen proiektuari bueltak ematen.

## Hau ez da disko bat.

*Esan Gabekoak* orain arte esan ez ditugun guztien bilduma da, hitzekin inoiz izango ez ditugun elkarrizketak kantuetan gordeak. Pertsona bati zerbait esan nahi zenionean CD edo cassette baten kantu zerrenda bat grabatzen zenuenean bezala. Kasu honetan, gure kontzeptua hori da, baina desberdintasun batekin, **hau ez da disko bat**.

Esan gabeko lehen gauza: gure kasuan, disko (CD) fisikoak zentzu guztia galdu du, musikazale erromantikoak garen heinean, euskarri fisikoaren xarma onartzen dugun arren.

Ideia honen haritik tiraka, CD baten forma duen lan fisiko bat argitaratu dugu, baina ez da disko bat. Euskarri honen bitartez, kantu bakoitzak QR kode bat eskaintzen du. QR kode bakoitzarekin kantuaren inguruko dokumental labur bat aurkitu daiteke, eduki esklusiboarekin: estudio edo lokaleko irudiak, prozesu osoaren erakusketa, taldekideei elkarrizketak…

**Behin betikotasunez, honekin inoiz esaten ez dugun, edo erakusten ez dugun guztia azaleratzeko prest gaude.**




### ~~PIZTEN DOA~~

Abestia 2019an sortu zen. Lehen maketa baxu-jotzaile den Enekoren logelan sortu zen, goizeko ordubietan, aurrez prestatutako pizza bat jaten genuen bitartean. Pizza oso bigun gelditu zen, mikrouhin-labean egin genuelako, baina kantua ez zitzaigun horren gaizki atera. Abestia funk, disco eta pop musikaren artean mugitzen da eta lan honen lehen adreilua izan zen.

### ~~NEKATURIK~~

2020ko martxoan sortu zen eta 2022ko otsailean bukatu genuen. Zazpi lelo desberdin izan ditu. Hainbeste bueltaren ostean, gure kutunenetarikoa dela esan dezakegu. Letrak lorik gabeko gau batean sortzen diren drama merkeei buruz hitz egiten du, umore kutsuakin.

# GUDA DANTZA
## ~~ESAN GABEKOAK~~

### ~~HIROSHIMA~~

Batzuetan memento goxo batean zaude, baina laster guztia pikutara joango denaren susmoa izan dezakezu, zerbait arraroa da. Letrak sentsazio honi buruz hitz egiten dugu. Ekoizterako orduan, Fleetwood Mac taldearen soft-rock bateria erritmoak erreferentzia moduan hartu genituen. Ez dakigu azkenean kantu ildo horretatik mugitu den, baina tira, hasierako intentzioa hor dago.

### ~~NORA NOA?~~

Talde bat izatearen B aldeak arakatzen ditu, askotan ikusten ez direnak: ordu txikitan errepide zaharkituetan gidatu, eszenatoki batera igotzeak dakartzan zalantzak… Ez dakigu non entzun dugun, baina porrota garaipenik jatorrena da. Kantua esaldi honekin laburbildu dezakegu.

### ~~ZAZPI BALA~~

Aurreko kantuekin dramatikoegiak izaten ari ginen eta hau guztia arintzeko beharra sentitu genuen. Kantua oso erabatekoa izan zen, ez genuen kantua zorabiatu, suposatzen dugu duen freskotasuna honen emaitza dela. Story-tellin´ bat da, baxu indartsuekin eraikitako funk soinu banda batekin. Bertan, Lide Hernandoren kolaborazioarekin kontatu genuen eta honek ilusio berezia sortu digu.


Kontratazioa: 659 97 58 20
baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)



**Produkzioa:** Urtzi Iza, Guda Dantza, Eneko Ajangiz **Grabazioa, nahasketa, masterizazioa:** Eten Espazio Sonoro
**Diseinu fisikoa:** Lubaki Grafik Faktory **Mock-up diseinua:** Alba Murias **Ikus-entzunekoak:** ZERIKUSI
**GUDA DANTZA:** Iker Maguregi (bateria), Ander Basañez (saxofoia), Jon Basañez (tronpeta), Jon Maguregi (gitarra), Eneko Ajangiz (baxua) eta Alain Beraza (ahotsa).


ENTZUN



Somos Guda Dantza, una banda de Bizkaia que está encarando su décimo año de trayectoria. Sabemos que sería recomendable buscar una etiqueta para nuestra propuesta, pero por fortuna, en este momento no es posible. Después de publicar tres discos que se mueven alrededor de los ritmos ska-rock, ahora ponemos un trabajo distinto encima de la mesa. Son muchas las cosas que no hemos contado a lo largo de estos años.

No sabemos cómo llegamos a ese punto, pero en 2019 nos percatamos de que en algunos momentos de nuestra trayectoria no habíamos sido del todo honestos. Bueno, igual no es para ponernos así de dramáticos, pero la verdad es que, en ocasiones, hemos dejado muchas cosas en el tintero, tal vez por vergüenza. Así es como comenzamos a darle vueltas al proyecto que ahora presentamos.

## Esto no es un disco.

*Esan Gabekoak* es una pequeña colección de todas esas cosas que no hemos dicho hasta ahora, conversaciones que jamás tendrán lugar recogidas en canciones. Esto es como cuando querías transmitir algo a alguien y terminabas grabando un CD o un cassette con una selección de canciones. En este caso, nuestro concepto va por ahí, con una pequeña diferencia, **esto no es un disco.**




La primera de esas cosas que no hemos dicho hasta ahora: en nuestro caso, el disco físico ha perdido todo su sentido, aunque admitamos el encanto del formato físico, en la medida en la que somos oyentes románticos.

Partiendo de esta idea, presentamos un producto que tiene forma de disco, pero no es un disco. A través de este soporte, cada canción ofrece un código QR diferente. A través de cada código, se puede acceder a un pequeño documental exclusivo de la canción: imágenes del estudio y el local, muestra de todo el proceso, entrevistas a los integrantes de la banda…

**Definitivamente, con esto pretendemos mostrar todo aquello que no se dice o se enseña.**

### PIZTEN DOA

La canción nació en 2019. La primera maqueta surgió en la habitación de Eneko, bajista de la banda, a las dos de la mañana, mientras comíamos una pizza precocinada. La pizza nos salió demasiado blandita porque la hicimos en el microondas, pero la canción no nos quedó tan mal. El tema se mueve entre el funk, el disco y el pop, y fue el primer ladrillo de este trabajo discográfico.

### NEKATURIK

Surgió en marzo de 2020 y la terminamos en febrero de 2022. Ha tenido siete estribillos distintos. Después de tanta vuelta, podemos decir que es una de nuestras canciones favoritas. La letra habla sobre los dramas baratos que surgen en una noche sin dormir, con un toque humorístico.

### HIROSHIMA

A veces, cuando estás en un momento dulce, puedes llegar a sentir la sospecha de que pronto todo va a saltar por los aires, es algo extraño. La letra habla sobre esta sensación. A la hora de producir el tema las baterías soft-rock de la banda Fleetwood Mac fueron la referencia. No sabemos si, al final, la canción fue por ese camino, pero bueno, la intención primaria está ahí.

## GUDA DANTZA

### ESAN GABEKOAK

### NORA NOA?

Explora las caras B de estar en una banda, lo que muchas veces no se ve: conducir a altas horas de la mañana por carreteras descuidadas, las dudas que genera el acto de subirse a un escenario… No sabemos a quién atribuirle esta frase, pero escuchamos en alguna parte que el fracaso es la más noble de las victorias. Estas palabras podrían resumir la canción.

### ZAZPI BALA

Estábamos poniéndonos demasiado dramáticos con los anteriores temas y sentíamos la necesidad de aligerar todo esto. A decir verdad, esta canción fue muy inmediata, no le dimos demasiadas vueltas, suponemos que su frescura es resultado de ello. Es un story tellin´ con una banda sonora construida a partir de sólidos bajos funk. Para rematar el tema, contamos con la colaboración de Lide Hernando, lo cuál nos hace especial ilusión.

Kontratazioa: 659 97 58 20
baga biga
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

**Producción:** Urtzi Iza, Guda Dantza, Eneko Ajangiz **Grabación, mezcla y masterización:** Eten Espazio Sonoro

**Diseño físico:** Lubaki Grafik Faktory **Diseño del mock-up:** Alba Murias **Contenido audiovisual:** ZERIKUSI

**GUDA DANTZA:** Iker Maguregi (batería), Ander Basañez (saxofón), Jon Basañez (trompeta), Jon Maguregi (guitarra), Eneko Ajangiz (bajo) eta Alain Beraza (voz).

ESCUCHAR